



BERONTAZ, BERORTAZ ETA BERARTAZ

JOSE ANTONIO LOIDI BIZKARRONDO

*Erreneria, Errenderi,
Villanueva de Oyarzun, Orereta,
Oarso, Aitzbitarte... ala Ondartzulo,
gure «txokoa», jaiotzez
eta gizaldiz-gizaldi,
euskaldun beti...*

Erreneriar jator guziak dakiten bezala, bertan dugu, Aitzbitarten, Landarbaso-ko erreka ondoan, gure arbaso, aurrenengo gizonen aztarnategi ezagunenetako bat: gure baserritarren Kuku-zulo alegia.

Bost kobazulo dira guzira, baina, erreka zulotik goruntz, laugarrena da denetan garrantzitsuena.

Bertan aurkitu diren tresnak erakusten digutenez —jakintsuak diotenez—, Aitzbitarteko kobazuloa, goi-paleolitikoaroko gizakien bizi-lekua izan zen; bertan bilatzen zuten, orduko, izoztearen eta basapizti izugarrien aurkako babesa.

Eta, aurkitu ere, Aitzbitarten aurkitu ziren, aurrenengo aldiz Euskalerrri osoan, kobazulotako gizonen bizi-tokiko aztarnak.

Aurrenengo azterketak (ez oso egoki, zoritxarrez!), M. del Valle, Lersundiko kondeak egin zituen 1892.garren urtean. Eta geroztik —altxor-bilatzaile eta lapurrez gainera—, ikertzaile askok aztertutako kobazuloa izan da. Bertan aurkitu diren lanabes, aztarnak eta kondarrak, esan bezala, Goi-Paleolitikoak (Aurignac, Solutre eta Magdalen aldikoak) dira bereziki. Santimamiñe, Lumentxa, Altxerri, Ekain, Ermittia, Laperra, Bolinkoba, mila tresna, langai, txintxilario, kondar, abelaztarnak, arte-lan eta irudi zoragarriez apaindurik azaltzen diren Euskalerriko kobazuloen kidea da.

Erreterian aurkitu zen aurrenengo aldiz kobazulotako aintzin-aintzineko Euskalerriko gizonen aztarna.

* * * *

Gure aspaldiko arbasoak (gureak, euskaldunenak, eta gureak, erreteriarrenak!), kobazulotan noiz bizi izan ziren jakiteko gogoak badugu, abiatu gaitezen gaurtik atzeraka, eta ikusiko dugu, Aitzbitarten zirela bai azkeneko izozte-geroko garaieko Azil aldian (8.000 urte?) eta baita ere, azkeneko (Wurm) izozte garaieko Magdalen aldian (15.000 urte?), Solutre aldian (25.000 urte?) eta Aurignac aldian (35.000 urte?)...

Orduan sortu ziren oraingo giza endak: *Homo sapiens sapiens* eta, jakintsu askoren iritziz —arkeologiak, eusko-etnografiak, eta euskerak berak (orduan erabiltzen zituzten langai askoren izenak eta abar)—, Magdalen garaierako gutxienez *Cromagnon* endatik, pixkanaka-pixkanaka aldatuaz, gure gaurko euskal-enc.a berezia.

Kobazulo:an bizi ziren aurrenengo gizonak euskaldun ziren.

* * * *

Orduko gizonak, beren aztarnak erakusten digutenez, basapiztien usaian, beren atzetik ibiltzen ziren, jana sortzearen. Abelazaintza zer zen ez zekiten. Arraiak, magurio, maxkor eta abar, itsaso edo ibai eta erreketatik, eskuratzen zituzten. Landareak eta beren fruituak (ur, intxaur eta kurkuxak batez ere) jaten zituzten, baina nekazaritza zer zen ez zekiten.

Beren bizibidean, bazekiten, jakin ere, beren zereginetarako tokirik egokienak bilatzen. Erreka, ibar, mendiarte zokotan, zarata bidez uxatuz, toki sakonetara zuzentzen zituzten, eta bertan, alde-zurretik egindako zulotan menperatu eta izkiluz jo eta bertan garbitzen zituzten bertaritzen ziren orduko abereki, abelgorri, zaldi, aragizale, azeri, otso, eta baita —zirenean— ile-dun elefantea eta rinozeronte adarbakarra ere.

Beste kobazulo ondota gertatzen zen bezalaxe, toki egokia zen benetan, beren «ogi-biderako», Landarbaso-ko mendi-tarteko erreka zuloa. Erreka zuloak bai, eta baita nolabaiteko ur-gurutze (Ekain, e.a.), ibai-muga edo bokale bazterrak (Altxerri, Arbil, Ermittia, e.a.) orduko gizonentzat bizi-toki bereziak izaten ziren.

Baina, batez ere, mendiz inguratutako, irterik gabeko erreka itsuen ondoan, ikuspegi zabaleko tontor bateko kobazuloak, izaten ziren beren bizi-toki maiteenak: Basondo, erreka

itsuaren ondoko Santimamiñe; Yarza mendiarteitsuaren ondoko Urriaga-ko kobazuloa; Bostiturrieta, erreka itsuko Lezetxiki-ko kobazuloa; Isturitz-ko Laminzilo; Urnieta-ko Marizulo; eta beste toki asko.

Kobazuloko gizonak, beren «ogi-biderako», irterik gabeko menditar-teak zituzten maite.

* * * *

Maizenik, erreka eta ibaietako ura, jauzika edo geldiro-geldiro, itsasoraño agerian, izarpean, dijoa. Baina gertatzen da, noiz edo noiz, erreketako edo ibaietako ura, agortu gabe, lur azpian gorde eta beste urrutiko toki batetan berriro agertzen dela.

Euri ura, berez, ur bakar eta garbia da. Baina, euri ttantaka edo zarrapataka dela, goitik datorrela, aizeko anhidrido karbonikoa urtuaz (eta oraingo tximinerik gabe!!), garrastan pittin bat bereganatzen du urak. Eta, eraso kimiko baten bidez, lurreko kararria pixkanaka-pixkanaka urtuaz, zuloak, leizeak eta kobazulo izugarriak irekitzen ditu; eta ttantoka-ttantoka, milaka urtetan, danok ezagutzen ditugun troska ikusgarriak sortu ere bai.

Karstico deitzen diote jakintsuak (Istria-ko berebiziko lurralde baten izenetik: Karst alegia), urak «zulatutako» lurraldeei. *Karst* lurralderik ikusgarriena Ipar-Amerikako Kentucky-n dago. Kobazuloak 60.000-tik gora dira. Eta gela luzeenak 48 Km. luze omen ditu.

Euskalerrian *Karst* lurralderik ezagunena Aralar dugu. Eta bertako luto-zulo eta osinetan ezkututzen den ura, berriro non azalduko ote den, askotan aztertua izan da. Eta ustegabeko tokitan azaldu ere: Iribas eta Irañeta (Nafarroan) eta Amezketa, Zaldibi eta Ataun (Gipuzkoan).

Aitatu ditudan erreka itsuak ere, sorrera berdina dute. Oso ezaguna da, esate baterako, Esera ibaieko ura, gero, Garona-n azaltzen dela. Eta berdin Guadiana-n, Hajar-en, Jiloca-n eta abarren gertatzen dena.

Euskalerrian ere baditugu bana-banakako menditarte itsuak. Aizarna-koa izango da noski zabalena. Eta Aralar-en (Maizegi, Errekabeltz e.a.), Bidania-n, Urto-n eta abarren, baditugu franko.

Menditarte itsuen sortze berezia.

* * * *

Menditarte itsuei, zabal xamarrak direnean *poljes* deitzen diote mundu guziko jakintsuak. Gaztelez *hoya carstica* eta baita *torca* txikia denean. Eta... guk?

Nere iritzi apala aurreratuko dut: erreka itsua edo bere azkeneko xurrutegi zuloa bederen, *aizarna* ote?

«*Aizarna, aizarna zulo (G); Orificio por donde pasa el agua a la rueda del molino*» — dio Azkuek.

Irterik gabeko erreka ltsuetan ere, ura errota-zulotan bezala gordetzen da. Ez ote da berdin, Aizarna auzoko izenaren esan-gura?

Menditarte itsuen izenaz.

* * * *

Eta Erreterian?... Erreterian ere, bi menditarte itsu gu-txienez baditugu.

San Markos-ko mendia kararrizkoa da. Bertako marmol gorria gogoratu besterik ez dugu. Eta, San Markos-en ere, delako *karst* fenomenua gertatu da nolabait. Saiaburu baserritik, San Markos-ko bidean gora, ezkerretara ikus daitezke, San Markos eta Txoritokieta mendiotsen artean, Ondartzulon, irte-rik gabeko bi menditarte txiki. Bertako ura, lurrazpitik barrena, Masti errekarara (askok Pekin deitzen diotenara), Iturburu eta Uretxe baserrien aidera (bi izen zalatari) irteten da.

Bien arteko lepoan (Aitzondo baserritik oso bertan) «sorgi-netxe» bat ere badugu. Leibar-ek eta Elosegik, 1962-an bilatu zutena: «Aitzeta-ko Txabala», alegia.

Eta... kobazulorik? Kobazulo ere bai! Bidetik eskuin aldera oso bertan, San Markos mendiko maldan zegoen... edo dago.

Neroni, umetan, nere lagunekin askotan izan nitzen bere atarian. Dena sasiz betea egoten zen eta, bertaratuaz, «mmuuu...!» eginaz, batak bestea izutuaz ibiltzen ginen. Esan ere esaten zuten, «gure» kobazuloa, San Markos mendi tontor-rean aurkitzen den gazteluko gela batekin elkartzen zela lur azpitik. Eta San Markos bertan, erakutsi ere, erakusten ziguten, txutxumutxuka ziotenez, sekula santan ireki ez zen eta kobazu-loko bidea itxitzen zuen, giltzatutako ate izkutu eta beldurgarri bat.

Kobazulo berri bat Erreterian?

* * * *

Ez dakit San Markos-ko kobazuloa «berez» gure arbasoen-tzat bizi-leku izateko gai zen ala ez. Dena dela, orduko gizonak (eta berdin emakumeak!) ez ziran bizi oraingo «confort»-en ametsetan. Baina tokiz? Tokiz bai: toki berezia zen bizi-leku izateko:

- a) Beren «lan» eta «ogi-biderako», bi menditarte itsuen ondoan.
- b) Arrantzarako Pasai-Lezo-Erreteriarako itsas-adar eta ibaietik gertu.
- c) Atalai bezala, barrandegi bere-biziko, ikuspegi zabaleko tokian. (Gezurra dirudi San Markos 282 m. eta Txoritokieta-tik 315 m. ikusten den guzia!).
- d) Bizkarrez-bizkar, edozertarako, Aitzbitarte-ko kobazulo-koekin, auzo. («Bertaxko-bertaxko» ote?)
- e) Alde batetik eta bestetik, orduko abereki eta basa-piztien ibilbideen gainean.
- f) Eta, batez ere... Erreterian!!